

NAFARROA ARDATZ

TXILLARDEGI

Aurten berriro ere, indar abertzaleek **ABERRI EGUNA** Iruñean ospatzea erabaki dute. Eta ongi idatzita dago aurrekoa; sigla abertzaleak eta indar abertzaleak, zoritzarrez, ez bait dira gaur gauza bera.

Iruñera bilduko gara, beraz, Euskal Herriaren **nazio**-eskubideak ozenki aldarrikatzekotan; eta, beraz, autodeterminatzeko eta askatzeko geure eskubide sakratuak gogoraziko dizkiegu bertakoei eta kanpokoei.

Batzuk «Euskadi» hitza lardaskatzeko lotsarik izan ez badute; eta Euskal Estatu Askatua izendatzeko asmatu zen berba, Nafarroa gabeko «hirurac bat» mainguari erasteko trabarik senditu ez badute, guk bai, guk badugu; eta Iruñeara bilduko gara, «vascongadismo» ustelean harrapatuko ez gaituztela berriz zin egitera.

«Damuak garaiz» dio atsotitzak. Eta egia da. XIX. mende-bukaera hura, euskal karlismoaren ondoko deskalabroarena urrun gelditu zaigu. Alferrik da kexatzea.

Garbi ikusi zuen Arana-Goirik Euskadi España ez dena; eta Euskal Herriarentzako soluzio-bide bakarra **ASKATA-SUNETIK** pasatzen dena.

Arana-Goirik, ordea, gaizki planteiatu zuen askatasun horretarantzko ibilbidea. Mende askotan barrena, **Nafarroa** izan da Euskal Herriak ezagutu eta antolatu duen Estatu bakarra. Eta, beraz, «Euzkadi» hitz berri hori sobera zen. Orain beranduegi da ehun urte ezabatzeko.

Baina euskal **abertzaletasunaren muina** hauxe besterik ez zen (eta ez da) funtsean: **Nafarroa piztea**. Nazio-odol gisa euskara gure herriaren mintzabide bihurtuz, eta «**lingua navarrorum**» delakoa zuzpertzuz beraz; eta Nafarroa berri horretarako hiriburutzat, jakina, lehen bezala, **Iruñea** hautatuz.

Seigarren merindadearen kontzientzia oraindik bizirik egonik, Nafarroa-Behereko Garazi-Amikuze eskualde Ipartarrak, frantses administrazioaren menpean dagoenez gero, besterik gabe desager-eraziko zuen gure arazoaren «españoltasuna» (printzipioen mailan bederen).

Ez zuen Arana-Goirik hau ulertu. Guk bai. Eta ia-ia gure arazo nagusia honela aurkez liteke: nola egin gaur, berriro ere Nafarroak eta nafartarrek euskal komunitatearen erremalak har ditzaten?

Zeren eta:

Nafarroa **puskatua** baita: Baxenabarra batetik, Hego-Nafarroa bestetik.

Nafarroa **muriztu** baita; herri baskoniko guztien gidariak, bortxaren ondorioz ebatsitako eskualde pilo bat galdu bait du: Errioxa, Okamendieta, Bureba, Onsella, Sobrarbe, Ribagorza, Biarno bera.

Nafarroa **hustua** bait da; eta lehen bai demografiaz eta bai ekonomiaz gure nazioaren erdi baino gehiago zena, laurdena, are hamarrena ere bihurtu bait da; Ipar-Ekialdeko eskualde jendegabetuetan nabarmenki ikus daitekeenez.

Nafarroa **lapurtua** izan baita; Erriberan eta Iruñean bereziki ageri diren klase-zatiketak eta jauntxoaren madrilekeriak lotsagabeki argitzen dutenez.

Nafarroa **erdaldundu** bait da; ezin sinetsia bait da gaur, ehun urte beranduago, A. Kanpion-ek bere «Gramatika»n oraindik ere euskararen erabiltzaile aipatzen zituen herriak: Ibiriku, Estenoz, Obanos, Gares, Tirapu, Uterga, Legarda, Unzue, Barasoain, Garinoain, Olleta.

Nafarroa **gezurtaratua** izan bait da bere kondairari buruz: «el origen fundamental, y donde radica la fuerza de la resistencia armada de la provincia, procede, no del entusiasmo en favor de Don Carlos, sino del ardiente afan de conservar sus fueros» (Miraflores); eta batzuren plana hau bait zen: «alzar a Zumalacarreui con la corona de Navarra, y hacerlo Rey de los vascos» (Manuel Lasalla), gipuzkoar generalak honelakorik onartu ez bazuen ere.

Nafarroa, hitz batez, **alienatua** bait da erabat: «Nabarra va cada día siendo menos baska, y cada día menos nabarra. La ley de degenerescencia es doble: la una vacía el contenido basko, la otra el contenido nabarro; esta segunda ley opera con mayor lentitud que la otra. A los patriotas les toca tomar a pechos la noble empresa de abolirlas y abrogarlas» (Kanpion).

Baina **Nafarroa dugu abertzaletasunaren ardatzat**.

Eta horregatik beragatik, Iruñera joango gara datorren 25ean. Eta geure indar guztiez errepikatuko dugu kale horietan barrena geure helburu laukoitza: Gora Nafarroa askatua, batua, sozialista eta euskalduna!